

# *Funtsezko elkarteak*

Gure enpresa aurrera eramateko behar-beharrezkoak dira elkarte eta hornitzaile batzuk gure inguruan izatea. Horregatik behar ditugu hainbat elkarte gauza desberdinetarako:

- Etorkinak kontratatzeko ONG baten laguntza beharko genuke. Horretarako gauza asko eskaintzen dituen ONG batekin kontaktuan jartzeko helburua daukagu, beraz, ikusi dugu ONG honek nahi ditugun proposamenak eskaintzen dituela. Adibidez: Prestakuntza osoa eta pertsonalizatua, lan-merkatura sartzeko eta bizimodu autonomoa eta independentea izatea errazten dute. Elkarteak egoiliarrei eskatzen die beharrezko ardurak hartzeko proiektua mantentzeko eta euren helburuak betetzeko: elkar errespetatzea, elkarrekin bizitzeko gaitasuna, instalazioak eta denentzako gelak zaintzea eta garbi mantentzea, eguneroko jatorduak prestatzea, etab.
- Jatetxe bat dugunez, janariaren hornitzaile bat behar dugu. Batez ere, kalitatezko produktuak, prezio onean eta kilometro zeroako saltzen dituen hornitzaile bat aurkitu nahi dugu. Bilaketa sakon baten ostean, La Riberaren merkatuan hainbat espazio aurkitu dugu. Erriberako Merkatua, Bilboko itsasadarraren ondoan, merkataritza arloan, Bizkaia osoarentzako erreferentea da. 1990ean Erriberako Merkatua Guinness liburuan sartu zen, Udal Hornidura merkatu osoena izateagatik. Merkatarari eta postu kopuruari dagokionez, dagoen handiena da, eta Europa osoko merkatu estalirik handiena.
- Janaria etxez-etxe banatzea nahi dugu horrela jende gehiagora helduko gara. Pentsatu dugu kontaminazio arazoak murrizteko langileek bizekleten bidez janaria banatzea.